



JEXUS, JEXUX!! IJURKO, HAU DA LOTSARIA ERAMAN DUDANA

Zeruko Jainkoak, Amabirjinak edo goiko Manuelek argi egingo ahal dit. Besterik ezean inpernuko Patxik bere suaren bidez. Bai, argia edo zentzua betor **Argia** hontara edo, gutxienez, aburu hertsietatik ateratzeko zerbait.

Irakurri dut 959. zenbakian Jexus Ijurkok idatzi duena (lehenago Ikurko zela usten nuen; baina, orain, batek badaki nor). Jexus, Jexus!! Baina, jendeak zer uste du, bestek ere ez dakitela gehiegikeriak esaten ala? Egia esan, jakin izan banu Jexus Ikurko delakoari holako larrialdia sortu behar niola, behar bada isilik egonen nintzen. Nonbait, ustegabeen, bere luma zorrotza amuztu bai dut. Zer pena! «Erreprotxeak» merezi ditut, baina oraindik ez dakit nork eman behar dizkidan.

Alperrikako hitz galduen jokorik ez diot besteri galaraziko; baina «indulgentzien eta absoluzioen» kezka gehiegirik gabe bizi izan denak ere bere buruaren alde ohar batzu egiteko eskubidea du, bereziki okerra eta zuzena nahasten direnean edo erreaxiodun baten aurrez aurre aurkitzen denean. Zeren, irakurleai horrenbeste zor zaio.

Tontoa ez denak badaki amagandik jasotakoa, ez dela gutziz edo zehazki amarena bezalakoa. Inoiz ez bai dut esan amak bezalakoa. Eta amagandiko bizkaieran ez nuen jaso ez H, ez Z eta ez TS ahokatzeko ahalmenik. Gure artean hizkuntz geografiaz zerbait dakitenek horrenbeste ere jakin behar zuten. Hori ulertzen ez duenarentzat aski zait gogoak ematen didanean, gogoak agintzen duen erara egiten dudala esatea. Zuzentasunez inork ezer «erreprotxatzerik» ez duenez pertsona bera faltatzen ez den artean. ONU-ren eskubide arauak aipatzen hasi beharrik ez dut zentzudunen artean. Arrazoiak ari dena konturatu behar zen bere burua itxura gabeko kritikapean jarri baino lehen. Zeren, behin eta berriz esango diot, euskaraz eta euskararen alde lana egiten duenari ere bere errespetua zor zaio.

Idazle bakoitzak, berak neurtu behar du giroa, «mass media» eta bere gogoen erantzukizuna. Eta, norbere buari kontuak eskatu, besteenari baino lehen.

Bestalde, auzi hontan haritik landa nor dabilen ikus dezagun. Hortarako, zera esango diot, xuberotarra telebistan zuberotarrez ere oso pozik entzungo nukeala. Bai horixe! Han bertan ere gustatzen zait berekin solasean ihardutzea, nere idazkiren batean hala esana dudanez. J. Ijurkok emango ote dit «xuberotar informatibo» horren aukerarik? Hala bada, betor zorionean.

Tituluen atzetik inoiz ibili ez naizenez, J. Ijurko edo delakoaren «instinto morbosoak» guti axola neri, eta «D» mailako titulurik ez dut behar idazle libreprintsalarria izateko. Ez dakidana, zera da, J. Ijurko berak holako titulurik nahi duen. Hala balitz, eta euskaraz jakiteagatik bada, artikulua horren arabera oinarriturik tituludun ateratzea «aparizio sorpresiboa» izango litzazuke. Hori bai, Jainkoagan sinetsi gabe Andre Mariaren Birjintasunean sinestea bezalakoa.

Artikulu hori delata, hau da lotsaria eraman dudana. Gauza hauek esan beharrez, ahalge utzi nau. Eta, txarrena ez da hori. Txarrena da, Ijurkok ahal duela izena aldatzea, baina nik ez; ez izenik eta ez aurpegirik, Juan San Martin naizenez. Erantzunen azpian nik nere izena jarzen bai dut, eta ez izenordezkorik.

Beste puntu bat argi utzi beharrezkoa, Jexus Ijurko delakoak ez badaki ere, Euskaltzaindiak ez duela ez ni eta ez beste inor idazkerazko erabakiez behartzerik, gomendatu baizik. Eta, gomendio hori ere, gure artikulua begiratzen dituen edozein irakurle ohartuko denez, Ijurkok haina betetzen dut. Nere artikuluoak, gutienez, euskaraz bai daude. Ijurkorenak ordea, erdaraz ere badakidalako ulertu ditut. Ulertu ez dudana, zera da, mafia aitazkiak agertu duen seta.

Guzti hontaz, txundituta gelditu dena, ni neu naiz. Ez bai nuen espero gauzak bideratzeaz egin nuen artikuluetxoak holako arrakasta izanen zuenik. Hor ba, nondik bihurtu natzaion A. Fermin Iraolagoitia jaunari ere aingeru. (Ikus **Deia**, 1983-I-9-koa, Bizkaiko edizioan). Baina, gauzak ez dira horrela. Nerearen sarreran aski garbi esaten nuen «idazleak, berak hautatu behar du norentzat zelan idatzi, eta euskara batuaren alde gaudenok jasanberak izan gaitzen euskaraz idazten duenarekin, arren, naiz batuan edo naiz euskalkiren batean egin; zeren, bakoitzak ditu bere arrazoiak eta euskara batua helburutzat hartu dugunontzat ere euskalki batean idazteak kalte gutiago duelako gure hizkuntzarentzat erdaraz idazteak baino». Uste dut Bizkaiko euskalkiaz ari ginela, ez subeuskalkiez, zeren bizkaierak ere, bere literatura apurrian, aditz forma jator bat badu. Mogeldarrendandik Txomin Agirrera doana, Añibarro, Pedro Astarloa, Uriarte eta Fr. Bartolomek erabilia eta nik horiek ditut maite, ez tradizioaz kanpo dabilen hori. Baina, tira, gainerakoa ere gaitzerdi.

Dena dela, bere idazkizko partadeitzari esker, orain ez dakigu adarra nork nori jotzen dion.

Juan San Martin